



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2021eko martxoaren 25a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko azaroaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



- 2.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 3/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 4/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 4.- Onartzea, egoki bada, kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketaren aldatzea, kontratazio-argazkia udalbatzarra denean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko baratze-parkea adjudikatzeko eta kudeatzeko udal-araudi erregulatzailea.
- 6.- Berrestea, egoki bada, 2019ko maiatzaren 20ko 241. zenbakidun alkate-dekretua, onartzen duena, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari doan lagatzea segidako finka hau: Anibarko Portuko 30, 31 eta 32 zenbakiekin adierazitako eraikinaren beheko solairuko 1 zenbakidun merkataritza-lokala.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO AZAROAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2020ko azaroaren 26an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 3/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2021 zenbakidun espedienteak kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 69.048 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonaleko Batzordeak 2021eko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2021eko aurrekontuari dagokion 3/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 69.048 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 4/2021 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2021 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 572.543 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonaleko Batzordeak 2021eko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2021eko aurrekontuari dagokion 4/2021 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 572.543 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:



a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailetza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KONTRATAZIO-ESPEDIENTEEN KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAKETAREN ALDAKETA, KONTRATAZIO-ORGANOA UDALBATZARRA DENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonaleko Batzordeak 2021eko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA kontratazio-espedienteen kontratazio-mahaiaren osaketa aldatzea, kontratazio-organoa udalbatzarra denean. Aldaketa hau egin da:

Kontratazio-mahaiaren idazkaria Maider Lopetegi Azkue izango da aurrerantzean, Ibai Lertxundi Iribarren partez.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO BARATZE-PARKEA ADJUDIKATZEKO ETA KUDEATZEKO UDAL-ARAUDI ERREGULATZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udal-araudiak bi helburu ditu: batetik, Orioko baratze-parkeko partzelak erabili, gozatu eta aprobetxatzeko baldintzak eta arauak zehaztea; eta, bestetik, partzela horiek adjudikatzeko prozedura zehaztea, eta bertako baratze-jardueraren ezaugarriak eta erabiltzaileen ardurak zehaztea.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzordeak 2021eko martxoaren 2an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko baratze-parkea adjudikatzeko eta kudeatzeko udal-araudi erregulatzaileari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal-araudi hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

6.- BERRESTEA, EGOKI BADA, 2019KO MAIATZAREN 20KO 241. ZENBAKIDUN ALKATE-DEKRETUA, ONARTZEN DUENA, BESTEAK BESTE, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRARI DOAN LAGATZEA SEGIDAKO FINKA HAU: ANIBARKO PORTUKO 30, 31 ETA 32 ZENBAKIEKIN ADIERAZITAKO ERAIKINAREN BEHEKO SOLAIRUKO 1 ZENBAKIDUN MERKATARITZA-LOKALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

2019ko maiatzaren 20ko 241. zenbakidun alkate-dekretuak honela dio, hitzez hitz:

***VISTO** que el Pleno Municipal de Orio, en su sesión extraordinaria celebrada el día 7 de marzo de 2019 acordó aprobar por unanimidad, el Convenio de colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Orio, en relación a la promoción de alojamientos dotacionales en el ámbito de Anibarko Portua en el término municipal de Orio, y que en su cláusula segunda se recoge el compromiso del Ayuntamiento de Orio de “ceder, previa segregación y libre de cargas, parte de la finca nº 4036 de Orio”, todo ello, de acuerdo a las condiciones establecidas en el propio convenio de colaboración de referencia, que fue suscrito con fecha 20 de marzo de 2019.*

***VISTO** que la descripción de la finca nº 4285 (proveniente de la finca matriz nº 4036) es la siguiente:*

Urbana. Número uno. Local comercial número uno sito en la Planta baja del edificio señalado con los números treinta, treinta y uno y treinta y dos de Anibarko Portua en Orio con una superficie útil de doscientos sesenta y seis metros cuadrados y cincuenta y nueve decímetros cuadrados (266,59m²). Linda al Norte con fachada a la carretera Nacional N-634; Sur con soportales; Este con Escaleras de acceso a la



planta de Sótano y Oeste con Zona verde y rampa de acceso de vehículos a la planta sótano.

Tiene una cuota de participación en elementos comunes de 3,77%.

VISTA la necesidad y voluntad municipal de mantener en propiedad municipal una parte de dicha finca para su uso como centro comunitario del Barrio de Anibarko Portua, se ha acordado con la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi la segregación de una parte de la finca de referencia, situada al Oeste y con una superficie útil de veintinueve metros cuadrados y cincuenta y siete decímetros cuadrados (29,57m2).

VISTO el informe emitido por la Arquitecta Municipal con fecha 16 de mayo de 2019; y estimando completo el trámite, en uso de las atribuciones que me confiere la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público; el artículo 24 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril y artículo 41 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, así como con la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público,

RESUELVO

1º.- AUTORIZAR la segregación del local comercial número uno sito en la Planta baja del edificio señalado con los números treinta, treinta y uno y treinta y dos de Anibarko Portua en Orio con una superficie útil de doscientos treinta y siete metros cuadrados y dos decímetros cuadrados (237,02m2). Linda al Norte con fachada a la carretera Nacional N-634; Sur con soportales; Este con Escaleras de acceso a la planta de Sótano y Oeste con Local Segregado número dos.

Tiene una cuota de participación en elementos comunes de 3,35%.

Y en consecuencia, el resto de la finca matriz quedará con la siguiente descripción:

Local comercial número uno sito en la Planta baja del edificio señalado con los números treinta, treinta y uno y treinta y dos de Anibarko Portua en Orio con una superficie útil de veintinueve metros cuadrados y cincuenta y siete decímetros cuadrados (29,57m2). Linda al Norte con fachada a la carretera Nacional N-634; Sur con soportales; Este con Local número 1 y Oeste con Zona verde y rampa de acceso de vehículos a la planta sótano.

Tiene una cuota de participación en elementos comunes de 0,42%.

2º.- APROBAR la cesión gratuita en favor Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco de la finca segregada con la siguiente descripción: Local



comercial número uno sito en la Planta baja del edificio señalado con los números treinta, treinta y uno y treinta y dos de Anibarko Portua en Orio con una superficie útil de doscientos treinta y siete metros cuadrados y dos decímetros cuadrados (237,02m2). Linda al Norte con fachada a la carretera Nacional N-634; Sur con soportales; Este con Escaleras de acceso a la planta de Sótano y Oeste con Local Segregado número dos.

Tiene una cuota de participación en elementos comunes de 3,35%.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA 2019ko maiatzaren 20ko 241. zenbakidun alkate-dekretua, onartzen duena, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari doan lagatzea segidako finka hau: Anibarko Portuko 30, 31 eta 32 zenbakiekin adierazitako eraikinaren beheko solairuko 1 zenbakidun merkataritza-lokala.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Lourdes Salsamendi (EAJ) zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du egia dela Udalbatzarreko ia gai guztiak aho batez onartzen direla, udalbatzar honetan gertatu den bezala; baina, hala ere, EAJk bere egonezina adierazi nahi duela Ainara Munduate zinegotziak (EH BILDU) egindako errekerimendu hau dela-eta: Ainara Munduatek azalpenak eskatu dizkio EAJri Espainiar Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorretan Orioko Oribarzar hondartza leheneratzeko aurreikusitako partidari buruz, EAJren talde parlamentarioak aurkeztutako zuzenketa bati erantzunez sortu zen-eta partida hori. Lourdes Salsamendik adierazten du bere talde politikoa beti prest dagoela Orioko herriaren interes orokorraren alde egiteko eta, horretarako, laguntza osoa eskaintzen diola gobernu-taldeari.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du EH BILDU talde parlamentarioak aurkeztutako zuzenketa baten ondorioz, 3.000.000 euroko diru-partida bat sartu dela Espainiar Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorretan, Motondoko paduraren ingurumen-balioak berreskuratzeko proiektua finantzatzeko. Era berean, EAJ talde parlamentarioak aurkeztutako zuzenketa baten ondorioz, 1.900.000 euroko diru-partida bat sartu da Espainiar Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorretan, Orioko Oribarzar hondartza leheneratzeko. Gaiak landu eta bideratu ahala, dagokion udalbatzordean aztertuko dira, gero udalbatzarrerara ekartzeko eta dagozkion erabakiak hartzeko.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ/PNV) berriro hartzen du hitza, eta adierazten du bere talde politikoa ez duela inolako asmorik eztabaidetan sartzeko, eta txalotu egin nahi duela EH BILDUko eta EAJko talde parlamentarioek egindako lan goraipagarria, Espainiar Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorretan bi diru-partida horiek sartzeko.



ORIOKOUDALA



Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du inportanteena dela Orioko herriarentzat baliabide ekonomikoak lortu direla inbertsio publikoak finantzatzeko, eta EH BILDU, ORAIN eta PSE-EE-PSOE udal-taldeek ez dutela inoiz zalantzan jarri EAJ talde politikoak laguntzeko asmoa duenik eta ez dutela inoiz adierazi «ezkutuan» ari direnik.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta adierazten du, alde batetik, EAJ udal-talde politikoak eskubide osoa duela bere egonezina adierazteko aipatutako gaiarekin; batez ere, kontuan hartuta udaleko gaietan ez dela ia batere gatazkarik sortzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkio Ana Priede zinegotziari, Orioko «Munto» sektorean laster sustatuko diren alokairuko etxebizitzaren alde egindako lanagatik.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,